

MAITE ZAITUT!

Zein den eder arratsean,
Izar arte garbia,
Ifarretik agertzean
Mariñelen argia!
Bai andizki eder dago
Zeru zola andia!....
Zu miletan ederrago
Nere maite Maria!

Izarrak dire zeruko
Aingeruen begiak,
Gizonak begiratzeko
Jainkoak ezarriak;
Zu besorat agertzean,
Istuz beren argia,
Sartzen dire ilunpean
Nere maite Maria.

Ez du ain laket izarrak
Egon leku berea
Primaderan ez erleak
Baratzeko lorea;
Ez du ala argi-albak
Loriatzen choria
Nola ni zu ikustek
Ene maite Maria.

Maria zure aldera
Urbildu bezein sarri
Maite zaitut erratera
Ez naiteke atrebi;
Pilpira bat biotzean
Beldur bainaiz abia,
Maite zaitut erratean
Nere maite Maria.

Balin badut Jainkoaren
Maitatzeko dretchoa
Nola nik ez dut izanen
Zure maitatzekoa?
Zu zare nere bidean
Jainkoak ezarria,
Ez samur nik erratean
Maite zaitut Maria.

Maria, ni naiz mintzatu,
Orai zu mintza zaite
Zuk ni nauzun erradazu
Nik zu bezala maite;
Zu nerea, ni zurea,
Igatzeko bizia
Laiteke nere chedia
Ene maite Maria.

J. B. ELIZAMBURU.